

DAFYDD ELIS-THOMAS (GALESKO LEgebiltzarreko Lehendakari eta Plaid Cymru Alderdi Kidea)

«Boto galerak ez du trabatuko Legebiltzarrak botere handiagoa lortzeari buruzko eztabaida»

Dafydd Elis-Thomas Galesko Legebiltzarreko presidente hautatu zuten atzo, bigarren agintaldiz jarraitu. Horrez gainera, PC Plaid Cymru alderdi nazionalistako buruzagia da. Duela lau urte Legebiltzarra abian jarri zenean botoa eman zioten hainbat laboristak berriz ere Alderdi Laboristaren alde bozkatu dutela aitortu duen arren, garrantzia kendu dio boto galerari.

Plaid Cymruk bost diputatu galdu zituen joan den osteguneko hauteskundeetan. Zer dela eta?

Tira, arrazoi ugari daude. 2001. urtean Westminsterreko Legebiltzarreko hauteskundeetan izan genituen antzekoetara itzuli gara, eta argudia daiteke 1999an gure alde egin zuten zenbait laboristak berriz ere Alderdi Laborista babestu dutela. Orain Gobernuak Legebiltzarreko diputatuen erdiak izango ditu, lehen ez bezala, eta interesgarria izango da egoera.

PCko kide batek esan du hobe zenukeela Legebiltzarreko presidentetza uztea alderdia ez ahultzeko. Ados zaudete?

Horri buruzko eztabaida bat izan genuen. Nire ikuspuntua da garrantzitsua dela karguari jarraipena ematea; Konstitu-

zioaren garapenerako garrantzitsua dela uste dut. Nik uste dut ona dela presidentetza jarraitua izatea gutxienez hiru urtez. Zergatik esan zuen alderdiak alderdia ahulduko zuela?

Suposatzen dut ni Legebiltzarren barruan kargua izateko itzultzearen aldekoa dela. Alderdiarekin konpromisoa daukat, baina baita Legebiltzarreko kideekin ere, zeinek modua eman didaten Legebiltzarreko presidentetza jarraitzeko. Laboristek proposatu ninduten kargurako, eta nire alderdiaren oposizioko alderdi nagusiaren babesa izan nuen.

Galera handienetakoa nagusiki gales hiztunak diren herrien bihotzean izan duzue. Haien babesa galdu duzue? Ez nuke esango haien babesa galdu dugunik. Diputatu bat galdu genuen soilik 70 boto-rengatik, eta beste bat 22-rengatik. Beraz, ez dut uste sostenguan aldaketarik izan zenik. Aldaketa nazionala gertatu zen laboristen aldera atzera, zeinak zerikusia duen Galesko egoerarekin. Ez dut uste hizkuntza politikak zerikusia izan zuenik horretan. Oro har, Plaid Cymrutik laboristen aldera joan ziren botoak %5 izan ziren,



ERAKUNDEAK

«Parte hartzeak erakutsi du zein alde txikiagatik aterata zen aurrera 1999ko autonomia erreferenduma»

GALESA

«Ez dut uste populazio mugimenduari buruzko eztabaida lagungarria denik eztabaida politikorako»

eta Alderdi Laboristak irabazi handiagoak izan zituen hegokialdeko guneetan, berez aldekoagoak dituzten guneetan hain zuzen.

Parte-hartzea 1999an baino txikiagoa izan zen. Legebiltzarrak ez du nahiko babesik gizartean?

Ez, beldur naiz ez duela. Horrek erakusten du [autonomia] erreferenduma zein alde txikiagatik aterata zen aurrera: 6.000 botoko aldeagatik bakarrik. Zailagoa izan da erakundeari sinesgarritasuna ematea, eta uste dut Plaid Cymruen emaitzetan hori ere islatu dela.

PCko kide batzuek buruzagi aldaketa eskatu dute. Haren kargua auzitan dago?

Ez, nire ikuspegia da legegintzaldi honetan jarraitu behar duela. Egoera honetan buruzagitza berrira aukeratzeak egongaitasun handia sortuko luke.

Gales hiztunen herrietara bizitzera doazen ingelesen auzia berriz ere eztabaida mahaiari jarri da?

Ez dut uste Simon Glynek eztabaida politikoa irabazteko onuragarri egin dionik, egia esan. Nire hautes-barrutian, adibidez, hautesle kopuru handi bat Galesetik kanpo jaiotako herritarrak dira, eta ez dugu

hizkuntza testik egin beharrik botoa emateko. Beraz, ez dut uste populazio mugimenduari buruzko eztabaida lagungarria denik eztabaida politikorako.

Londresek adierazi zuten joan den astean emaitzek erakutsi dutela Galesko independentisten porrota. Ados zaudete horrekin?

Ez, ez dut uste hori kontua denik. Hau ez da autonomia gehiago eskuratzeari buruzko erreferendum bat; legebiltzar nazionalak botere handiagoa lortzeari buruzko eztabaidak aurrera jarraituko du. Ez dut uste hauteskunde emaitzak aldaketarik eragingo duenik horretan.

Hauteskunde kanpainako garaian, independentizlarako Errepide Mapa zenuela esan zuten Londresek. Hala da?

Beno, ez dut ulertzen zertaz ari den. Esan nahi dut: hori inoiz ez da izan Galesko alderdiaren politika. Hori inoiz ez da izan nire politika. Eta, Peter Hain, noski, Erresuma Batuko nazionalista tradizionalista da. Guk, noski, Europako eskualdeen garapena gogo onez ikusi nahi dugu, non Galeseta beste nazio eskualdeek ordezkaritza handiagoa izango duten. Hainek, berriz, ez du sostengatzen hori.

Zer egingo du PCk boto galerrari aurre egiteko?

Aukera egongo da berrantolatzeko. Ez dut uste arrazoirik dagoenik aldaketa handiak egiteko.

Transakzio Denbora: The Timing of Transaction

Gailurra Donostia

Jendaurreko ekitaldia (Performanceak, hitzaldiak eta irakurketak) Maiatzak 9, ostirala, 18:30etan

Antolatzaileak: Gailurra Donostia Tel: 943 45 36 62

Antolatzaile:

